BIZITEGI ERAIKINA — ALDAMAR 2

C MAILA





Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1886

Deskribapena

Aldamar, Erregina Erregeordearen eta Etxague Jeneralaren kaleek eta Salamanca pasealekuak mugatutako etxadiko etxe multzo bateratu baten barruan dago. Jose Maria Mujica obra maisuak eraiki zituen (10 etxetarako proiektu komuna). Xehetasun eklektikoak sartuta tradizio neoklasikoaren barruan, behe oineko lokalen, lau oinen eta mantsardaren tratamendu bateratuagatik nabarmentzen dira. Zenbait etxeri begiratokiak erantsi zizkieten aurrerago, kasu honetan alakan dagoen hormigoizko begiratokiarekin gertatzen den moduan. Kantoi honetako oinplanoak erakusten du maila bakoitzean 200 m2 inguruko etxebizitza bakarrak okupatutako ohiko etxe burgesa. Bertan, kalera eta etxadi patiora ematen duten bi orientazio nagusiko soluzio orokorra nabarmentzen da; gainera, oin bakoitzeko bi etxebizitza aurrez aurre jartzen dituen mehelinean kokatutako patioetara irekitzen diren hainbat gela daude.

Babes erregimena

1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena.
- A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez
- B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; hormigoizko begiratokia.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Plan Berezi honetako E mailan integratutako “Erregina Erregeordea – Aldamar” multzoan –Aldamar 4 eta 6 zenbakiekin, eta Erregina Erregeordea 2tik 6ra arteko zenbakiekin batera– sartu izanaren ondoriozkoak; jasodurak ez dira onartzen.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.